

ARAUDIA

II.BASABURUA ENDURO

LASTERKETA

3. JARDUNALDIA

OPEN SUSTRAILS ENDURO BTT



2023



Aurkibidea

1. IZEN EMATEAK	2
• Mugaketak	2
• Zer hartzen du barne?	2
2. DATAK ETA ORDUTEGIA	2
• Larunbata, urriak 21	2
• Igandea, urriak 22.....	3
3. IBILBIDEAK	4
4. KOKAPENAK	5
• Irteera/paddock	5
• Parking-a	6
• Non jan/lo egin.....	6
5. DESKRIBAPENA.....	7
6. XEDAPEN TEKNIKOAK	7
7. BIZIKLETAK	8
8. E-BIKE	8
• Gehieneko lagundutako abiadura	8
• Bateriaren erabilera	9
• Egiatzapen teknikoak eta kontrolak	9
9. BABESAK ETA SEGURTASUN NEURRIAK	9
10. KATEGORIAK	10
11. DORTSALAK ETA TRANSPONDERRAK	10
12. IZEN EMATEEN ITZULTZE POLITIKA	10
13. IRTEERA ETA ORDUTEGI KONTROLAK	10
14. SAILKAPENAK	11
15. SARIAK ETA TROFEOAK.....	11
16. ERREKLAMAZIOAK	12
17. ZIGORRAK.....	12
18. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK.....	12



[II. Basaburua Enduro Lasterketa](#) -ko araudi hau Sustrails Open Enduro BTT-ko araudiaren gehigarri bat da.

Probako denborak [dMillennial Rural Projects](#) enpresaren bidez hartuko dira.

1. IZEN EMATEAK

- **Mugaketak**

Izen emateak 200 partaidetara egongo dira mugatuta, urriaren 19ko 23:59 h arte edo eta parte hartzaileen kopurua bete arte [izena emateko web orrian](#).

Prezioa 45€-koa izango da federatuentzat, eta 55€-koa ez federatuentzat. Umeen lasterketako prezioa 15€-koa izango da segurua barne.

Data honetatik aurrera ez da izen ematerik onartuko.

- **Zer hartzen du barne?**

- Segurua eta atentzio medikua, bai larunbateko klasifikatorian eta baita igandeko lasterketan ere.
- Hainbat sariren zozketan parte hartzea, gure babesle guztiei esker.
- Hornidura puntua urriak 21 igandeko proban.
- Parrillada eta edaria doain urriak 21 igandean. Larunbateko parrillada ordaindu egin beharko da, [Basaburua MTB](#)-rako dirua biltzeko helburuarekin.
- Partaide bakoitzaren argazkiak.

2. DATAK ETA ORDUTEGIA

Proba [Jauntsarats](#) (Basaburua, Nafarroa) herrian egingo da urriaren 21 eta 22-an.

- **Larunbata, urriak 21**

- Dorsalak jasotzea [Jauntsaratseko kiroldegian](#), 9:00 h eta 13:00 h artean.
- 8:00 h eta 13:00 h artean entrenoko ibilbidearen ikuskatzea (Bakoitza bere aldetik, dorsalik gabe egin daitezke eta entrenamenduak ez dira beharrezkoak izango).
- 15:00 h Antolakuntzak probaren inguruan eskeinitako briefing-a [irteera/paddock](#)-ean.
- 15:30 h Irteera elkarrekin klasifikatoria eta umeen lasterketarako (10-14 urte) [irteera/paddock](#)-ean.
- 16:30 h Umeen lasterketaren hasiera.
- 17:00 h Monozikloen ikuskizuna.



Araudia II.Basaburua Enduro Lasterketa – 3.en jardunaldia Open Sustrails Enduro BTT

- 17:15 h Klasifikatoria hasiera.
- 19:00 h Zozketa eta parrillada [Discodelia](#)-k animatuta [irteera/paddock](#)-ean.
- 20:00 h [Irteera/paddock](#)-ean lasterketako enlazeen ordutegien pegatinen jasotzea. Partaide kopuruaren arabera, ordu hau aurreratu egin daiteke.
- **Igandea, urriak 22**
 - 8:00 h Lasterketaren hasiera. Parte-hartzaileek [irteera/paddock](#)-ean egon beharko dute, gutxienez beraien irteera ordua baina 10 minutu lehenagotik.
 - 14:00 h Parrillada [irteera/paddock](#)-ean.
 - 15:00 h Sari banaketa [irteera/paddock](#)-ean (parte-hartzaile kopuruaren arabera ordua aurreratu daiteke. II.Basaburua Enduro Lasterketa-ko eta Open Sustrails Enduro BTT-ko sailkapen orokorreko sariak banatuko dira.



3. IBILBIDEAK

Klasifikatoriako zein lasterketako ibilbideak, SEKRETUAK izango dira eta ez dira lasterketa egunerarte publikatuko. Horregatik, larunbateko klasifikatoria antolakuntzakoek ireki eta itxiko dugu bizikletekin. Igandeko lasterketako ibilbidea berriz, urriaren 21eko 20:00 h-tan publikatuko da gure [Wikiloc](#) profilean, [Trailforks](#)-en eta II.Basaburua Enduro Lasterketa ekitaldiaren [web orrian](#).

Larunbateko klasifikatoria tramo kronometratu batez egongo da osatuta. Igandeko lasterketan berriz, lau tramo kronometratu egongo dira, sub-18 kategorian ezik, hauek hiru tramo kronometratu egingo dituzte eta.

Jarraian, lasterketan sartu daitezkeen bidexka kronometratu POSIBLEEN zerrenda emango dizuegu, hau da, zerrenda honetan ez dauden bidexkak ez dira sartuko. Beraz, hauek dira tramo posibleak:

- [Basajaun](#)
- [Basakaitz](#)
- [Ernaitzu](#)
- [Iratxo](#)
- [Jentilak](#)
- [Lauburu](#)
- [Olentzero](#)
- [Sorginak](#)
- [Sugaar](#)

Tramo sekretuen aldetik, lasterketa egunean inoiz egin ez diren bi bidexka estreinatuko dituzue, *Jentilak* eta *Sorginak*. Horietako bat, bere osotasunean “a vista” egingo da. Beste sekretarako aldiz, bideo *On Board* bat publikatuko dugu gure [Instagram](#) kontuan urriarean 21ean 20:00 h-tan, ikasi dezazuen.

Urriak 22 igandeko ibilbideak hornidura puntu bat izango du bigarren eta hirugarren tramo kronometratuen artean.



4. KOKAPENAK

- Irteera/paddock

Ekitaldia [Jauntsaratseko kiroldegian](#) ospatuko da.

Hemen izango dira irteera eta meta, dortsalen jasotzea, sari banaketa, zozketak, parrillada, musika, etab.

Gainera, zerbitzu desberdinak egongo dira, hala nola dutxak, bizikleten gordailua, e-bikeak kargatzeko, mangera, etab.



Baimendutako ibilgailuek izango dute bakarrik sartzeko aukera, hala nola antolakuntzako jendea, laguntzaileak, anbulantziak, argazkilari eta bideografoak, etab.




- **Parking-a**

[Autokarabanentzat](#) zona bat prestatuko da, irteera/paddock-etik gertu. Horretarako, antolakuntzako taldea lekua ongi seinalizatuko du, beharrezkoak diren irteerak libre geratu daitezten. Libre geratzen diren plazak, kotxe eta furgonetek erabili ahalko dituzte.



Gainerako ibilgailuek [Basaburua ibaiaren bainu zonan](#) aparkatzeko aukera izango dute.



- **Non jan/lo egin**

Gure web orrian, proiektua babesten duten [zerbitzuak](#) ikusi ditzazkezue, non jan eta lo egin dezakezuen.



5. DESKRIBAPENA

Enduro BTT probak bidexka eta bideetan gauzatzen diren lasterketak dira, non partaide bakoitzak bakarka kronometroaren aurka borrokatze duen. Proba hainbat tramo kronometratuarekin (TC) osatzen da, eta denbora itxiko enlaze tramoekin (TE edo SE) elkarturik daude. Tramo kronometratuak bakarrak dira eta jaitsieran gehienbat. Enlaze tramoak pedalei emanez egin behar dira. Lasterketaren irabazlea, tramo kronometratuen denborak gehituz eta penalizazioak kontuan hartuz denbora gutxien erabiltzen duena izango da.

Enlaze tramoak karreteras eta/edo pista asfaltatuz izan daitezke. Parte hartzaileak Bide-Segurtasuneko Arauak betetzera behartuta egongo dira, eta lasterketatik kanpo geratu daitezke ez badituzte betetzen.

6. XEDAPEN TEKNIKOAK

Kontrol puntu bat jarriko da irteeran (0 puntua), non komisarioek babesak, jantziak eta bizikletak begiratu dituzten. Kontrol honetatik pasatzen ez den parte-hartzailea probatik kanpo geldituko da.

Bere ordua baina beranduago iristen den parte hartzaileari, atera beharreko ordutik pasatako denbora gehituko zaio, eta itxaron egin beharko du kronometratzaileak irteera eman arte. Lehenetsuna izango du bere orduan dagoen parte-hartzaileak. Parte-hartzaileak kronometratzailearen aginduak bete ezean, zigortua izango da, denbora gehituz edo probatik kanpo geldituz, larritasunaren arabera.

Dortsala, txipa edo bizikletaren plaka galtzeak parte-hartzaileak sailkapenean ez sartzea ekar dezake.

Tramo kronometratu baten bukaerara tramoaren irteera kontroletik pasa gabe iristen direnak, probatik kanpo gelditzearekin zigortuko dira.

Tramo kronometratuen arteko enlaze denborak, ibilbidea eta honen ezaugarriekin batera publikatuko dira. Parte-hartzailea sailkapenean sartu dadin, probaren ibilbide osoa egin beharko du, antolakuntzak diseinatutako ibilbidetik.

Zeharo debekatuta dago kanpoko asistentzia jasotzea tramo kronometratu baten barruan laguntza jasotzea matxura bat konpontzeko. Parte-hartzaileak bere kabuz konpondu beharko du edo tramo bukaerara arte iritsi beharko du eta bertan beharrezko laguntza jaso.

Parte-hartzaile bat hau baina azkarrago doan beste batek aurreratzen duenean, honek aurreratzea erraztu beharko dio. Aurreratzen duenak, errespetuz eskatu beharko dio aurreratzen dionari.



Araudia II.Basaburua Enduro Lasterketa – 3.en jardunaldia Open Sustrails Enduro BTT

Parte-hartzailen ororen betebeharra da, istripua izan duen beste parte-hartzaileari laguntzea eta antolakuntzari abixatzea, asistentzia medikuek zaindu dezaten.

Parte-hartzaile batek “Tramo Kronometratu” bat abandonatu dezake eta gainerako tramoetan parte hartu. Tramo horietako denborak behin-behineko sailkapenean azalduko dira, baina ez dira kontutan hartuko sailkapen orokorrerako.

Parte-hartzaile bakoitza norberaren erantzule izango da proban parte hartzeko. Berak hartuko du erabakia lasterketan jarraitzeko. Zerbitzu Medikukoek edo probaren zuzendariak ere erabakia hartu dezake osasunarekin lotutako segurtasun arrazoiengatik lasterketatik kanporatzeko.

Parte-hartzaileei gomendatzen zaie edaria eta elikagai energetikorenbat eramatea.

Oso gomendagarria da ere parte-hartzaile bakoitzak herramienta eta ordezeko pieza gutxi batzuk eramatea, matxura posibleak konpontzeko aukera izateko. Botikin txiki bat eramatea ere gomendatzen da.

7. BIZIKLETAK

Parte-hartzaileko MTB bizikleta bakarra egongo da baimenduta, hau berdina izanik tramoen hasieran eta bukaeran. Bizikletak eta gurpilak antolakuntzak markatu ditzazke.

Antolakuntzak eta komisarioek baimena izango dute Araudia edo segurtasun neurri minimoak betetzen ez dituzten bizikletak kanporatzeko.

8. E-BIKE

E-bike kategoriako parte hartzaileek, ondorengo araudia bete beharko dute, FCC-ko enduro BTT-ko araudian dion moduan:

- **Gehienezko lagundutako abiadura**

25 km / h. Ez daude baimenduta motorra pedalierraren mugimendu gabe funtzionarazten dituzten mekanismoak. Oinez ibiltzeko laguntza baimenduta dago, motorra gehienez 6 km/h-ko abiadura laguntzen duena. Honek, ibilbidea bizikletaren laguntza mekanikoarekin egitea lagunduko dio, e-bike kategorian baimenduta.



- **Bateriaren erabilera**

2 baterien erabilera baimenduta dago, baina bigarren bateriak 10 minutuko penalizazioa izango du probaren amaieran.

Bigarren bateria antolakuntzak markatzen duen puntutik aurrera erabili ahalko da, eta antolakuntza arduratuko da bateria puntu horretaraino eramateaz.

- **Egiaztapen teknikoak eta kontrolak**

Bizikletak egiaztapen tekniko bat jasoko dute irteeraren aurretik, non baldintzak betetzen dituztela kontrolatuko den.

Zirkuitoaren erdian control sorpresak egingo dira, eta araudi hau ez betetzeak probatik kanpo gelditzea suposatuko du.

Kategoria hau irtengo da lehenik. Gainerako parte-hartzaileekiko 5 minutuko margena utziz.

9. BABESAK ETA SEGURTASUN NEURRIAK

Beharrezkoa izango da kasko homologatuaren erabilera, bai tramo kronometratuetan eta baita enlazeetan ere (kasko integralaren erabilera gomendagarria izanik), rodillerak eta eskularru luzeak babes moduan, eta espalderaren erabilera gomendagarria da.

Bi kasko mota erabili ahalko dira, bat irekia eta bestea integrala.

Ez dira parte-hartzaileek gomendatutako babesak ez erabiltzearen ondorioz jasandako lesioen erreklamazioak onartuko.

Kontrol karnetak larrialdi baten aurrean beharrezko telefono zenbakiak izango ditu.



10. KATEGORIAK

II.en Basaburua Enduro Lasterketan parte ahal izateko, RFEC-n lizentzia federatiboa indarrean izan beharko du.

Federatua ez badago, eguneko lizentzia tramitatu beharko da eta hauek jaiotako urtearen araberrako kategorian sartuko dira. Probako kategoria puntuagarriak urrango hauek dira:

- INFANTILAK: 2009 eta 2013 urteen artean jaiotakoak.
- GIZONAK SUB-18: 2006 eta 2008 urteen artean jaiotakoak.
- GIZONAK SUB-23: 2001 eta 2005 urteen artean jaiotakoak.
- GIZONAK ELITE: 1994 eta 2000 urteen artean jaiotakoak.
- GIZONAK MÁSTER 30: 1984 eta 1993 urteen artean jaiotakoak.
- GIZONAK MÁSTER 40 eta 50: 1983 urterarte jaiotakoak.
- EMAKUMEAK SCRATCH: bizikleta normalekin 2008 arte jaiotakoak.
- GIZONAK EBIKE: bizikleta elektrikoarekin 2008 arte jaiotakoak.
- EMAKUMEAK EBIKE: bizikleta elektrikoarekin 2008 arte jaiotakoak.

Gainera, bizikleta normalekin parte hartzen duten gizonentzat **SCRATCH sailkapen orokorra** publikatuko da.

11. DORTSALAK ETA TRANSPONDERRAK

Dortsalak jasotzeko urriaren 21ean 9:00 h- 13:00 h artean. Transponderra jasotzerako orduan, 20 €-ko deposito bat utziko da, itzultzean berreskuratuko direnak.

12. IZEN EMATEEN ITZULTZE POLITIKA

Ordainketaren %90 itzuliko da, proba baino 10 egun lehenago baliogabetuz gero.

10 EGUN BAINO GUTXIAGO FALTA BADIRA, EZ DA DIRURIK ITZULIKO

13. IRTEERA ETA ORDUTEGI KONTROLAK

Probaren irteeratik, eta gainerako TC-etan, irteera banaka egingo da, 20-60 s arteko interbaloekin, antolatzailearen eta parte-hartzaile kopuruaren arabera. Irteera eta helmugak behar bezela markatuta egongo dira. Parte-hartzaile bakoitzak ordutegi batzuk bete beharra ditu kontrol paso bakoitzean, gehienezko denbora bat izanik sektore desberdinak egiteko.

Larunbatean tramo bat kronometratuko da, klasifikatoria bat iganderako irteera postuak zehaztuko dituen. 14 urtez azpikoek, tramo berdina egingo dute, beraien lasterketako sailkapena erabakiko duena.

Ordutegi hauek [dMillennial Rural Projects](#) enpresak banatuko ditu tramo kronometratua bukatu ondoren.

Igandean, lasterketa 4 tramo kronometraturekin, SUB-18 kategoriakoak izan ezik, hauek 3



izango dituzte eta.

Larunbateko klasifikatoria egin ez duen parte-hartzaileak, igandean denborarik txarrenarekin hartuko du parte.

Igandeko irteera ordua eta tramo kronometratuetakoak, parte-hartzaile bakoitzaren “Ordutegi Kontrol Txartelan” egongo dira inprimituta. Txartel hau bakarra izango da, pertsonala eta transferiezina. Txartel honetan parte-hartzaileak Ordutegi Kontrol bakoitzean bete beharreko ordutegi guztiak azalduko dira. Txartel hau itsaskorra izango da eta bizikletaren kuadroan itsatsita egongo da, ikusteko leku erraz batean kronometratzaileek ikus dezaten. Parte-hartzaile bakoitzaren ardura da txartela ongi egotea, eta horrela ez bada, antolakuntzari esan beharko dio. Txartel honen galerak probatik kanporatuta izatea ekar dezake, beraz, galdu bezain laster antolakuntzan abisua eman beharko dute. Debekatuta dago txartela moztu edo moldatzea.

14. SAILKAPENAK

Parte-hartzaile bakoitzaren sailkapena, tramo kronometratuen igarotako denborak gehitzean lortuko da, bai larunbatekoa eta baita igandekoak ere, penalizazio posibleak gehituta.

[dMillennial Rural Projects](#) empresa kronometratzaileak, Sustrails Open Enduro BTT laguntzen duena, aurretik erabakitako puntuaketa batekin kategoria bakoitzeko sailkapen nagusi bat egingo du.

Proba bakoitzean lortutako puntuazioak taula batean irudikatuko dira, Sustrails Open Enduro BTT-ko araudiko puntuaketa taulan oinarrituz.

90.postutik atzera dagoen parte-hartzaile orok puntu 1 jasoko du.

15. SARIAK ETA TROFEOAK

Kategoria bakoitzeko lehen hiru klasifikatuek trofeo eta sari bat jasoko dute. Sarien gain, dortsala duen parte-hartzaile bakoitzak lasterketaren babesleei eta antolakuntzari esker lortutako poltsa jasoko du.

Gainera, hau Sustrails Open Enduro BTT-ko azken proba izanik, Open-eko sailkapen nagusiko sari banaketa ere egingo da.



16. ERREKLAMAZIOAK

Probaren garapenarekiko edo parte-hartzaileen portaerarekiko erreklamazioak Komisarioei aurkeztu beharko zaie, gehienez, azken parte-hartzailea iritsi baina 15 minutu lehenago.

Klasifikazioarekiko erreklamazioak, hauek zabaldu eta gehienez, 30 minututara egingo dira.

Erreklamazio hauek komisarioek eta komiteko presidenteak aztertuko dituzte erabaki bat hartzeko.

17. ZIGORRAK

- Kanpoko laguntza markatutako zonatik kanpo – Lasterketatik kanpo
- Ibilbidea ez errespetatzea– 30 " (segundu)-ko penalizaziotik, lasterketatik kanpo geratzea larritasunaren arabera.
- Ibilbidearen trazadak ez errespetatzea edo moztea – Lasterketatik kanpo
- Remonteen erabilera edo laguntza lasterketan – Lasterketatik kanpo
- Remonteen erabilera edo laguntza entrenamenduetan – Lasterketan irteera hartzea debekatuta.
- Beharrezko ekipaziorik gabe irteeran azaltzea – Lasterketan irteera hartzea debekatuta.
- Ibilbidean zehar martxan kaskoa jarrita ez eramatea– Lasterketatik kanpo
- Zaborra lurrera botatzea – Lasterketatik kanpo

18. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Parte-hartzeak honako ondorioak ditu:

- Araudiaren onarpena bere osotasunean.
- Irudien eskubidea lagatzea, antolakuntzari baimena emanaz argazkiak edo bideoak publikatzeko edo beste batzuei uztekoa, denbora eta tokiko limitaziorik gabe, helburua ekitaldiaren promozioa edo difusioa izanik.
- Gainerakoekin errespetua eta elkartasuna erakustea, arazo larri baten aurrean edozeinen ongizatea aurretik jarritz. Modu honetan, "joku garbia" egotea lehiaketa osoan zehar.

